

# Ez dezagun haien motxila gehiago handitu

Mugako Gaitasun Intelektuala duten pertsonen kolektiboa ez da ezaguna eta sarritan haien beharrak ez ditugu erraz antzematen. Gida honen helburua etapa bakoitzean bizi dituzten zailtasunak ezagutzera ematea da, bide horretan lagundu ahal izateko.



## Ezaugarri orokorrak

Agerizko ezaugarri fisiko eza.

Adin intelektualaren eta kronologikoaren arteko desfasea.

Erabakiak hartzeko eta gatazkak konpontzeko zailtasuna.

Pertsonen arteko gatazkak konpontzeko egokitze-estrategia eza.

Iniziatiba falta eta inprobisatzeko gaitasun mugatua.

Jarduerak antolatzeko eta egoerak kudeatzeko laguntza beharra.

Kontzeptu abstraktuak erabiltzeko zailtasunak (espazioa, denbora, dirua, etab.).

Memoria selektiboaren maila ona, beste memoria mota batzuen kaltetan.

Oinarritzko hizkuntzaren erabilera.

## HARREMANAK ETA OREKA EMOZIONALA

- Harreman sozial zein afektiboak sortzeko eta mantentzeko zailtasunak.
- Emozioak erregulatzeko laguntza beharra.
- Zaurgarria harremanetan.
- Autoestimu baxua eta segurtasun eza.
- Porrotarekiko eta frustrazioarekiko tolerantzia txikia.
- Antsietate eta/edo depresio-koadroak izateko aukera handiagoa.

## Lehenengo etapa

## Haurtzaroa

### HEZKUNTZA

- Garapen psikomotore geldoa.
- Ikasketa prozesu motela.
- Kontzeptu abstraktuak ulertzeko zailtasuna.
- Alderdi motorretan alterazioa (lateralitatea, psikomotrizitate fina, oreka).
- Hizkuntzaren garapen motela.
- Atzerapena irakurketa-idazketa eskuratzean.
- Oinarritzko prozesu psikologikoen alterazioa (arreta, pertzepzioa, memoria, kontzentrazioa, diskriminazioa, sinbolizazioa, irudikapena eta kategorizazioa).
- Komunikazio-alterazioak izateko aukera handiagoa: dislaliak, disfemiak, disfasiak, dislexiak, disgrafiak, disortografiak eta diskalkuliak.
- Nekearekiko erresistentzia txikia.
- Ikasgai batzuetan egokitutako materialaren beharra.



## Bigarren etapa

## Gaztaroa

### FORMAKUNTZA

- Bi edo hiru urteko curriculum-desfasea DBHko bigarren etaparen hasieran, etapan zehar handituz joan daitekeena.
- Trebetasun akademiko instrumentaletan manipulatioetan baino zailtasun handiagoa.
- Banakako ikaskuntza-estrategien beharra.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitu aurreko eskola-uztearen prebalentzia altua.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBHG) graduatu-titulua lortzeko zailtasunak.
- Prestakuntza-ibilbidean zehar laneratzeko zailtasunak aurreikusten dira.



## HELDUARORA TRANTSIZIOA

- Adinaren araberako ohiturak eta erantzukizunak berandu hartzea.
- Komunikatzeko eta ulertzeko zailtasunak zenbait eremutan (osasuna, administrazioa, kudeaketak, etab.).
- Nork bere burua zaintzeko ohiturak mantentzeko laguntza beharra.
- Arrisku-egoeren eraginpean egotea talde baten kide izateagatik.
- Aisialdia eta denbora libre antolatzeko laguntza beharra.

## Hirugarren etapa

## Helduaroa

### ENPLEGUA

- Testuinguru ordinarioan lana mantentzeko zailtasunak.
- Gutxienez %33ko desgaitasunaren aitortpen beharra, beren beharretara egokitzen den lan-ibilbidea izateko.
- Kualifikazio-maila txikia.

### BIZITZA INDEPENDENTEA

- Ustekabeko egoerak konpontzeko autonomia eza.
- Helduaroen berezkozat jotzen diren erantzukizun batzuk hartzeko zailtasunak.
- Erabakiak hartzeko laguntza beharra (autodeterminazioa/autogobernua).
- Eguneroko bizitzako jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko laguntza beharra.
- Iniziatiba eza eta parte-hartze eskasa komunitatearen baliabide eta zerbitzuetan.
- Etxeko lanak antolatzeko eta kudeatzeko laguntza beharra.
- Dirua behar bezala kudeatzeko laguntza beharra.
- Aukeratua ez den bakardadea pairatzeko arriskua.



## Ondorio orokorrak



**HEZKUNTZA**  
Eskola porrota.  
Alfertzat hartzeko joera.



**HARREMANAK**  
Familiaz gain beste harremanik ez.



**AUTONOMIA**  
Bizitza independentea garatzeko zailtasunak.



**FORMAKUNTZA**  
Formakuntza kualifikazio baxua.



**ENPLEGUA**  
Laneratzeko zailtasunak.



**OREKA EMOZIONALA**  
Antsietatea, animo baxua eta osasun mentaleko gaitasunak garatzeko arriskua.

